




EMAKUMEZKO BERTSOLARIEI BURUZ GOGOETA



Maddalen Lujanbio, Ainhoa Agirreazaldeg, Leire Bilbao, Oihane Perea, Nagore Fernandez, Esti Muniozgu-ren eta Ekine Etxepeteleku. Zazpi neska hauek izan di-tugu aurten Urruñan, ekainaren 3an, egin den Eskolar-teko Bertsolari Txapelketaren finalean. Ez dira baka-rrak, hala ere.

*Testua: Izaskun ELLAKURIAGA
Argazkiak: Iñigo Gallego*

Txapelketan zehar hainbat neska ikusteko aukera izan dugu mikrofono aurrean pentsatzen zutena bertsoan esanez. Emakume dexente dago bertso eskolen giroan bertsoan egiteko gai direnak. Eta horrez gainera, bertsozale diren emakumeak milaka.

Ez dago dudarik, gaur egungo bertsolaritzan emakumeak bere «tokitxo» badu. Manolo Arozenak hurrengo bertsoan garbi adierazten du bertsolaritzan neskek duten presentzia.

Bertsoa da aidean
dijoan orbela,
nahiz ta pentsatzen dudan
ez dala ustela,
Basarrin adinekoak
jakin dezatela
neskak ta haurrak kantun
aitonak bezala.

Hala ere «tokia» izatera heltzeko zeregina badago. Plazatan neska batzuk bertsoan ikusi eta entzuten hasi bagara ere, oraindik askorentzat gertaera arraro bat baino ez da. Horrela adierazi zuten esaterako Maddalen Lujandio, Iratxe Ibarra eta Estitxu Arozenak 1993. urteko Bertsolari Egunean. Bertsolaritzaren historian lehenengo aldiz kantatzen zuten emakumeak horrelako egun batean. Hona hemen bota zituzten bertso batzuk:

MADDALEN

Sinbolikoki jarri gaituzte
maskota gisan ere bai,

ta borobila atera zedin
azken saioa gure zai,
neska soileko saiorikan ez
bagera gehiagorako gai,
gizonezkoen tarta honetan
krema ez degu izan nahi

IBARRA

Erabiltzen den hizkerak ere
badu nahiko zerikusi,
guk neskak kontu horretan behintzat
ez baitugu holan bizi,
nahiz-ta gizonek kristorenak esan
beren grazi eta guzi,
«de puta madre» gelditzen zaie
ta guri berriz itxusi.

ESTITXU

Emakumeok mikrofonoan
jaso izan dugu burua
gaur ere batzuk haserre daude,
ezin dute disimula,
ni ziur nago egunen baten
erakutsiko dugula,
bertsolaritzak barrabilekin
zerikusirik ez dula.

Emakume bertsolariak ez dira gaur egungo gauza bakarrik. XIV. eta xv. mendeetan hiletetan kantatzen duten hiltariez gain, herriko gertaerak kantatzen zituzten «mujeres profazadas» ere bazeuden. Horren urruti joan gabe ere, Bilintxek (1831-1876) Hondarribiko bertsolari baten berri ematen digu honako bertso honetan:

Aspaldian, Joxepa,
famatua zeunden,
gu berriz ikusteko
desiotan geunden;
Hondarribi aldian
aditzen genuen
dama bertsolari bat
nola bazeguen,
zeinak Euskalerrian
parerik etzuen.

Hala ere, bertsolaritza lehiaketaren esparrura pasatzean, gaur arte, dauden emakumeak ezkutu geratzen dira. Ondorioz, urte askotan bertsolaritza gizonez-







koen kontua zela pentsatu izan da. Baina aspaldian, apurka apurka, ideia hori indar gabe geratzen ari da aurrera atera diren emakumezko bertsolariei esker.

Baina bide handia dago egiteko eta uste asko ustel bihurtzeko. Emakumearen egunetan ospatzen diren bertso saioez gain, emakumezko bertsolariei plaza aurrera gehiago eman beharko litzaieke gizonezkoen maila bera izan dezaketela demostratzeko.

Aurtengo martxoaren 11ean esaterako, Elgetan lau emakume (Estitxu Arozena, Iratxe Ibarra, Ainhoa Agirreazaldegi eta Amaia Telletxea) eta gizon bakerra (Xabier Zeberio) jardun ziren bertsoan. Bertso saio polita eskaini zuten neskek baita Zeberio ere, bere «gizontasuna» azpimarratuz. Hona hemen han jasotako bi bertso eta lehenago adierazi dugunarekin erlazioanatu daitezkeenak.

AMAIA TELLETXEA

Nahiko arraro ikusi degu

honaraino etortean,
eta Estitxuk ondo esan du
bere agurra egitean
Nik hau ikusi eta buruai
esan diot bapatean,
«zer ari ote da bitxo handi hau
neska politen artean?».

XABIER ZEBERIO

Ikusten danez emakumeak
orain kantatzen dute tajuz
entrenatzen saiatzen dira
ta gainera pulamentuz,
baina gizonak lantzen gera
geure arteko kantuz,
oilarra gehio agindutzen du
zeu ibili zaitez kontuz!

Bertsolaritzan emakumeak bizi duen egoera aztertzea ez da lerro hauen helburu izan. Adibideak eskainiz falta eta behar den azterketa baterako abiapuntu izatea da gogoeta honen asmoa.